# Loteria Nazionaleko lehen saria eta berezia Tolosan banatu dira

**TOLOSA**

Tolosako herrian Loteria Nazionaleko lehen saria eta sari berezia banatu dira. 07021 zenbakia saldu zuen Tolosako dendariak adierazi digunez, guztira 406 milioi pezetako (hogei milioi libera pasatxo) dirutza banatuko da. Durangon ere lehen sariaren parte bat tokatu da.

Oleki izeneko dendak banatu du zenbaki saridunaren seriea. Orain urtebete, iazko uztailaren 14ean hain zuzen, denda berean saldu zen zenbakiak bigarren saria eta sari bereziaren diru asko ekarri zuen Tolosara. Dendariak adierazi digunez, nahiko banatua izan da saria, zenbaki honetako dezimoak erosle askoren artean izan bait dira erosiak. Lehen sariari 40 milioi pezetako dirutza dagokio. Diru hau, Tolosa eta Durangoz gain, Madrilen, Piedrafitan, Santa Pola eta Casa Ibañezen banatu da. 07021 zenbakiaren 08 frakzioa eta 05 serieak 246 milioi pezeta banatu ditu, sari bereziari dagokiona.

Loteria Nazionaleko bigarren saria 20 milioi pezetakoa izan da eta saridun suertatu den zenbakia 98897 da.

# Tabernek sortutako eragozpenak salatu ditu EAEko Arartekoak

**GASTEIZ**

Tabernetako zarata eta beste eragozpenei buruzko araudia salatu du Juan San Martin EAEko Arartekoak. San Martinek urtero bere ekintzen berri emateko argitaratzen duen txostenean esaten denez, «etxebizitza eta ostalaritza establezimenduen artean sortu ohi diren gatazkak araupetzen dituen araudiak hutsune eta akats handiak ditu». Eragozpenen artean musika altu jartzea eta usain txarrak aipatu ditu Arartekoak.

Arartekoak gai horren inguruan salaketa ugari jaso ditu. Horietan esaten denez, «diskoteka eta tabernetako musika ozenegiak goizalderaino irauten du». Salaketariek Udaletxeen «jokabide bigunegia» salatu dute, eta araudia zehatzago aplikatu behar dutela eskatu.

Txostenean agertu denez, «Udaletxeek establezimendu publikoei lizentziak ematean bete behar dituzten hiru urratsetatik bi besterik ez dituzte betetzen. Instalazio eta irekiera baimenak tramitatzeaz arduratzen dira, ez, ordea, hirugarren urratsari buruz. Horren arabera, Udaletxeek tabernen eta jatetxeen funtzionamendua kontrolatu behar dute». «Sarritan gertatzen da -dio Juan San Martinek- establezimendua zabaltzean ezarritako neurriak denborarekin bertan behera uzten direla». Araudian aurrikusten denez, Poliziak eskuhartu dezake hiritarren lasaitasuna, osasuna edo moralitatea arriskuan egonez gero. Juan San Martin arartekoak araudi hori 1961. urtekoa dela salatu du, «administrazio eta erakunde desberdinen arteko konpetentzien gaur egungo banaketarekin bat ez datorrelako».

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak gai horren inguruan kaleratutako epaia begi onez ikusi du Arartekoak. Epai horren arabera, «establezimendu publikoek sorturiko eragozpenak, gizabanakoaren oinarrizko eskubideen aurka eta Konstituzioak onartzen dituen etxearen bortxaezintasun eta intimitatearen eskubideen aurka doaz». Bukatzeko, San Martinek deia egin die Udaletxe, Eusko Jaurlaritza eta Diputazioei, «hiri ingurugiro egokia antola dezaten». aletxe, Eusko Jaurlaritza eta Diputazioei, «hiri ingurugiro egokia antola dezaten».



Arartekoak eragozpen hauen inguruan salaketa asko jaso ditu.

# Seiehun ikasletik gora daude Nafarroako udako ikastaroetan

**IRUÑEA**

Uztaila eta abuztua bitartean Nafarroako Unibertsitateak antolatu dituen udako ikastaroetan seiehun ikasletik gora matrikulatu dira. Aipagarri Soviet Batasunetik berrogeitamabi ikasle etorri direla gaztelera ikastera. Europako beste herrialdeetatik ere jende ugari hurbildu da Iruñara.

Hezkuntza Zientzi Institutuak apailaturiko ikastaroetan 275 ikasle dabiltza, zortzi ikastaro desberdinetan. Filosofia eta Letrak Fakultateak aurten Filosofiaren Hamabigarren Topaketak burutu berri ditu, eta 105 lagun bildu dira bertan.

## ESPAINIAKO LOTERIA NAZIONALA

1991KO ABUZTUAREN 17KO ZOZKETA

Hamabi serie 100.00 txártelekoa bakoitza

ZOZKETA 38/91

Zenbaki sarituei dagozkien irabazien zerrenda,azken zifraren arabera sailkatuak

Sari hauek, kobratu ahal izango dira 1991ko azaroaren 18a barne. ORDURA ARTE.



| 0 Zenbakiak | 0 Pezetak | 1 Zenbakiak | 1 Pezetak | 2 Zenbakiak | 2 Pezetak | 3 Zenbakiak | 3 Pezetak | 4 Zenbakiak | 4 Pezetak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 07000 | 50.000 | 07001 | 55.000 | 07002 | 50.000 | 07003 | 50.000 | 07004 | 50.000 |
| 07010 | 50.000 | 07011 | 55.000 | 07012 | 50.000 | 07013 | 50.000 | 07014 | 50.000 |
| 07020 | 1.050.000 | **07021** | **40.000.000** | 07022 | 1.050.000 | 07023 | 50.000 | 07024 | 50.000 |
| 07030 | 50.000 | 07031 | 55.000 | 07032 | 50.000 | 07033 | 50.000 | 07034 | 50.000 |
| 07040 | 50.000 | 07041 | 55.000 | 07042 | 60.000 | 07043 | 50.000 | 07044 | 50.000 |
| 07050 | 50.000 | 07051 | 55.000 | 07052 | 50.000 | 07053 | 50.000 | 07054 | 50.000 |
| 07060 | 50.000 | 07061 | 55.000 | 07062 | 50.000 | 07063 | 50.000 | 07064 | 50.000 |
| 07070 | 50.000 | 07071 | 55.000 | 07072 | 50.000 | 07073 | 50.000 | 07074 | 50.000 |
| 07080 | 50.000 | 07081 | 55.000 | 07082 | 50.000 | 07083 | 50.000 | 07084 | 50.000 |
| 07090 | 50.000 | 07091 | 55.000 | 07092 | 50.000 | 07093 | 50.000 | 07094 | 50.000 |
| 98800 | 50.000 | 98801 | 55.000 | 98802 | 50.000 | 98803 | 50.000 | 98804 | 50.000 |
| 98810 | 50.000 | 98811 | 55.000 | 98812 | 50.000 | 98813 | 50.000 | 98814 | 50.000 |
| 98820 | 50.000 | 98821 | 80.000 | 98822 | 50.000 | 98823 | 50.000 | 98824 | 50.000 |
| 98830 | 50.000 | 98831 | 55.000 | 98832 | 50.000 | 98833 | 50.000 | 98834 | 50.000 |
| 98840 | 50.000 | 98841 | 55.000 | 98842 | 60.000 | 98843 | 50.000 | 98844 | 50.000 |
| 98850 | 50.000 | 98851 | 55.000 | 98852 | 50.000 | 98853 | 50.000 | 98854 | 50.000 |
| 98860 | 50.000 | 98861 | 55.000 | 98862 | 50.000 | 98863 | 50.000 | 98864 | 50.000 |
| 98870 | 50.000 | 98871 | 55.000 | 98872 | 50.000 | 98873 | 50.000 | 98874 | 50.000 |
| 98880 | 50.000 | 98881 | 55.000 | 98882 | 50.000 | 98883 | 50.000 | 98884 | 50.000 |
| 98890 | 50.000 | 98891 | 55.000 | 98892 | 50.000 | 98893 | 50.000 | 98894 | 50.000 |
| **Amaierak** | | **Amaierak** | | **Amaierak** | | **Amaierak** | | **Amaierak** | |
| 420 | 25.000 | 021 | 80.000 | 442 | 35.000 | 4203 | 125.000 | 284 | 25.000 |
| | | 21 | 30.000 | 522 | 25 000 | | | | |
| | | 1 | 5.000 | 732 | 25.000 | | | | |
| | | | | 982 | 25.000 | | | | |
| | | | | 42 | 10.000 | | | | |

| 5 Zenbakiak | 5 Pezetak | 6 Zenbakiak | 6 Pezetak | 7 Zenbakiak | 7 Pezetak | 8 Zenbakiak | 8 Pezetak | 9 Zenbakiak | 9 Pezetak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 07005 | 55.000 | 07006 | 55.000 | 07007 | 50.000 | 07008 | 50.000 | 07009 | 50.000 |
| 07015 | 55.000 | 07016 | 55.000 | 07017 | 50.000 | 07018 | 50.000 | 07019 | 50.000 |
| 07025 | 55.000 | 07026 | 55.000 | 07027 | 50.000 | 07028 | 50.000 | 07029 | 50.000 |
| 07035 | 55.000 | 07036 | 55.000 | 07037 | 50.000 | 07038 | 50.000 | 07039 | 50.000 |
| 07045 | 55.000 | 07046 | 55.000 | 07047 | 50.000 | 07048 | 50.000 | 07049 | 50.000 |
| 07055 | 65.000 | 07056 | 55.000 | 07057 | 50.000 | 07058 | 50.000 | 07059 | 50.000 |
| 07065 | 75.000 | 07066 | 55.000 | 07067 | 50.000 | 07068 | 50.000 | 07069 | 50.000 |
| 07075 | 55.000 | 07076 | 55.000 | 07077 | 50.000 | 07078 | 50.000 | 07079 | 50.000 |
| 07085 | 55.000 | 07086 | 55.000 | 07087 | 50.000 | 07088 | 50.000 | 07089 | 50.000 |
| 07095 | 55.000 | 07096 | 80.000 | 07097 | 50,000 | 07098 | 50.000 | 07099 | 50.000 |
| 98805 | 55.000 | 98806 | 55.000 | 98807 | 50.000 | 98808 | 50.000 | 98809 | 50.000 |
| 98815 | 55.000 | 98816 | 55.000 | 98817 | 50.000 | 98818 | 50.000 | 98819 | 50.000 |
| 98825 | 55.000 | 98826 | 55.000 | 98827 | 50.000 | 98828 | 50.000 | 98829 | 50.000 |
| 98835 | 55.000 | 98836 | 55.000 | 98837 | 50.000 | 98838 | 50.000 | 98839 | 50.000 |
| 98845 | 55.000 | 98846 | 55.000 | 98847 | 50.000 | 98848 | 50.000 | 98849 | 50.000 |
| 98855 | 65.000 | 98856 | 55.000 | 98857 | 50.000 | 98858 | 50.000 | 98859 | 50.000 |
| 98865 | 75.000 | 98866 | 55.000 | 98867 | 50.000 | 98868 | 50.000 | 98869 | 50.000 |
| 98875 | 55.000 | 98876 | 55.000 | 98877 | 50.000 | 98878 | 75.000 | 98879 | 50.000 |
| 98885 | 55.000 | 98886 | 55.000 | 98887 | 50.000 | 98888 | 50.000 | 98889 | 50.000 |
| 98895 | 55.000 | 98896 | 770.000 | **98897** | **20.000.000** | 98898 | 765.000 | 98899 | 50.000 |
| **Amaierak** | | **Amaierak** | | **Amaierak** | | **Amaierak** | | **Amaierak** | |
| 55 | 15.000 | 096 | 30.000 | 1877 | 125.000 | 1068 | 125.000 | 0959 | 125.000 |
| 65 | 25.000 | 916 | 30.000 | 6687 | 125.000 | 508 | 25.000 | | |
| 5 | 5.000 | 996 | 30.000 | 627 | 25.000 | 878 | 25.000 | | |
| | | 6 | 5.000 | | | | | | |

**ZOZKETA HONEK 4.386.120 DEZIMO SARITU ADJUDIKATZEN DITU, GUZTIRA 4.200.000.000 PEZETA**

| SARI BEREZIA 246.000.000 pta. 07021 zk. LEHEN SARIA | FRAKZIOA | SERIEA | PILATUTAKO SARIA | HERRIA |
|---|---|---|---|---|
| | 8.ª | 5.ª | 250.000.000 | TOLOSA |